



PROIEKTUA: ZUMAIAKO ITZURUN ETA SANTIAGO HONDARTZETAN SURF
IKASTAROAK EMATEKLO BAIMEN ESKAERA

TXOSTENAREN DATA: 2026/04/08

Ingurumen sailaren txostena / Informe del Departamento de Medio Ambiente

1.-AURREKARIAK/ ANTECEDENTES:

2022ko martxoaren 4an, Gipuzkoako Kosta Zerbitzu Probintzialari baimena eskatu zitzaion 2022-2023-2024-2025eko udan hondartzak aldi baterako instalatzeko.

2022ko apirilaren 27an jaso zen udalean eskatutako okupaziorako baimena.

Baimen horretan emandako epea amaituta, Zumaiako Udalak beste baimen bat eskatu behar du.

2025eko abenduaren 2an, Portuen, Itsas Gaien eta Itsasertzaren zuzendariaren 2026ko hondartzetan sasoiko zerbitzuak instalatzeko baimen eskaerari buruzko idazkia jaso zen, eta bertan honakoa adierazten zen:

Eskaera BI (2) HILABETEKO epean aurkeztu beharko da, jakinarazpen hau jasotzen denetik zenbatzen hasita:

Alkateak sinatu beharko du, ustiapen planarekin batera. Planak honako hauek jasoko ditu:

- a) Eskatutako erabileren izenen zerrenda.
- b) Eskatutako instalazioak eta/edo erabilerak eskalako planoan kokatzea.
- c) Instalazioen eta zerbitzuen ezaugarriak eta neurriak; planoen bidez egiaztatuko dira, definizioak hala eskatzen duenean.
- d) Baimena zein epetarako eskatzen den. Udalak gehienez 4 urte eskatu ahal izango ditu, eta eskatzen duen zerbitzu bakoitzeko epea zehaztu beharko du. Epe horren bideragarritasuna aztertu eta, hala badagokio, baimendu egingo da. Urtebete baino gehiagorako baimena duten udalek, baimendutakoa aldatzen ez badute, ez dute beste eskaerarik aurkeztu beharko. Proposatutako instalazio edo erabilera berriak bakarrik eskatu behar dira, hala badagokio. Baimena urtebetetik gorakoa bada ere, ustiapen-aldia amaitu ondoren desmuntatu beharko dira instalazioak.
- e) Urteko ustiapen-aldia. Baimena gehienez 4 urterako eman ahal izatea alde batera utzi gabe, ekitaldi bakoitzean zerbitzua eskaini nahi den aldia zehaztu behar da eskabidean.
- f) Ekonomia- eta fidantza-azterketa, urriaren 10eko 876/2014 errege Dekretuaren bidez onartutako Kostaldean Erregelamendu Orokorren 89. Artikuluak zehazten duenaren arabera, eskaera egiteko unean eskatutako datu zehatzen bat ez badu, aurreko ekitaldikoak aurkeztu beharko ditu.



2.-TXOSTENA/ INFORME:

INSTALAZIOEN TAULA. AZALERAK, ESLEIPENDUNA, ADJUDIKAZIO-DATA ETA ZENBATEKOA

INSTALAZIOAK	EREMUA	AZALER A	ADJUDIKATZAILE A	DENBORALDIA	ESKATUTAKO BAIMEN DENBORA
SURF ESKOLEN USTIAPENA (ITZURUN HONDARTZA)	SANTELMOALDEA 1	16 M2	ESLEITU GABE	Ekainaren 15etik, irailaren 15era	4 URTE
	SANTELMOALDEA 2	16 M2	ESLEITU GABE		4 URTE
	ITZURUNTXIKI	16 M2	ESLEITU GABE		4 URTE
SURF ESKOLEN USTIAPENA (SANTIAGO HONDARTZA)	ERREKAREN ALBOAN	16M2	ESLEITU GABE	Ekainaren 15etik, irailaren 15era	4 URTE

Kirolguneen eskaerari dagokionez, Itzurun hondartzan surf eskoletarako 3 gune okupatzea eskatzen da. Eskolarako 6m2 eta ikastaroak ezartzeko 10m2 beharko direla uste da. Kontzeptu hori ez da aldatzen 2025. urtearekin alderatuta.

Santiago hondartzari dagokionez, surf eskoletarako gune bat okupatzea eskatzen da. Eskolarako 2m2 eta ikastaroak ezartzeko 10m2 beharko direla uste da. Kontzeptu hori ez da aldatzen 2025. urtearekin alderatuta.

- Espazioen antolaketa:


Zumaiako bi hondartzen zabalera eta egitura kontuan hartuta, bertako jarduerak garatu nahi dituzten enpresak mugatu behar direla ondorioztatu da. Ildo horretan, mugak ezarri dira hondartzan jarduera egiteko. Horretarako, Zumaiako Udalak sektorea arautzeko erabakia hartu du eta uretako kiroltako guneak helburu ekonomikoetarako erabiltzeko araudi bat onartu du.

Kirol Patronatuak lizentzia lortu nahi duten eskolei dei egiten die. Aurkezten diren eskolen txostenak aztertu ondoren, ordena bat egingo da, eta puntuazio handiena lortzen duten hirurek egin ahal izango dute jarduera.

ITZURUN

Hondartzako zaintza eta sorospen zerbitzuez arduratzen diren pertsonak mugatuko dituzte surf eremuak, banderekin (gorria eta urdina). Banderak itsasoaren egoeraren arabera jartzen dira, eta, beraz, egoki iritzi gero, lekuz alda ditzakete. Hala ere, azken urteetako esperientzia kontuan hartuta, hiru orientazio-arlo ezarriko dira uretako kirolak egiteko:

- Santelmoaldea 1 (ezkerraldea)
- Santelmoaldea 2 (ezkerraldea)
- Itzuruntxikialdea (eskuineko aldea)



Zona bakoitzean ordu bakoitzeko gehieneko ikasle kopurua ezarri du, hondartzaren ezaugarriak eta jendearen joan-etorria kontuan hartuta. Ikastaroetako parte-hartzaileak kolore bereko likrarekin identifikatuko dira. Udalak atera behar duen lizitazioan talde bakoitzak bere likrak definitu beharko ditu: monitore eta ikasleena ondo diferentzia daitezzen.

EREMUA	1. ORDUA	KOP.	2. ORDUA	KOPURUA
Santelmoaldea 1	08:00-10:30	10	10:30-...	6
Santelmoaldea 2	08:00-10:30	10	10:30-...	6
Itzuruntxikialdea	08:00-10:30	10	10:30-...	6

Eskola adjudikaziodunek une oro bete beharko dute monitore bakoitzeko gehienez ere 6 ikasleko ratioa. Ratio hauek kontuan izanda, gehienez une jakin batean uretan aldi berean 30 pertsona egon daiteke.

SANTIAGO

Hondartzako zaintza eta sorospen zerbitzuez arduratzen diren pertsonak mugatuko dituzte surf eremuak, banderekin (gorria eta urdina). Banderak itsasoaren egoeraren arabera jartzen dira, eta, beraz, egoki iritziz gero, lekuz alda ditzakete. Hala ere, azken urteetako esperientzia kontuan hartuta, ur-kirolak egiteko orientazio-gune bat prestatuko da:

— Itsasadarraren ondoko eremua



Zona bakoitzean ordu bakoitzeko gehieneko ikasle kopurua ezarri du, hondartzaren ezaugarriak eta jendearen joan-etorria kontuan hartuta. Ikastaroetako parte-hartzaileak kolore bereko likrarekin identifikatuko dira. Udalak atera behar duen lizitazioan talde bakoitzak bere likrak definitu beharko ditu: monitore eta ikasleena ondo diferentzia daitezen.

EREMUA	1. ORDUA	KOP.	2. ORDUA	KOP
Errepide alde/Ibai aldea	08:00-10:30	10	10:30-...	10

Bi hondartzetako sarreran, uda garaian, kartel informatibo bat jartzen da, hondartzan jartzen diren banderen esanahia adierazten duena.

Baimen bakoitzaren kokalekua aldatu ahal izango da hondartza bakoitzeko Salbamendu eta sorospen Zerbitzuak, itsasertzaren dinamikarekin, segurtasunarekin edo ezaugarri teknikoekin zerikusia duten inguruabarrak direla-eta; betiere, kokaleku berria jatorrizko kokalekutik ahalik eta gertuen egon dadin ahaleginduko da.

- Ikastaroen deskribapena:

Surf eta Bodyboardeko ikastaroak eskaintzen dira, horretarako entitate bakoitzak metodologia eta xehetasun guztiak eskaintzan aurkezten ditu.

Horretaz gain, Badira urte batzuk Udalak surf-eta bodyboard-ikastaroak eskaintzen dituela Foru aldundiaren Uda kanpainaren barruan. Ekimen horri jarraipena emateko, egunean bi ordu erreserbatuko dira (9:00-11:00) 3. Baimenari dagokion eremuan, hastapen-jarduera horiek aurrera eramateko. Uda kanpaina bertan behera geratzen bada, izitatzailaren esku geratuko da eremu hori.

Hori gutxi ez eta, La Caixa fundazioa eta irabazi asmorik gabeko Ziske elkarteak aniztasun funtzionala duten pertsonekin antolatu ohi dituzte saioak Itzurun hondartzan honako egutegian:

- Eguna: astearte eta osteguna.
- Ordua: 17:00-19:00

Itsasoaren egoeratik edo beste edozein arrazoiengatik egunak moldatu behar badira aurretiaz jakinaraziko zaie adjudikaziodunari.



Uretan lan egingo duten surf eskolei buruz eskatutako dokumentazioari dagokionez, jakinarazi behar dugu oraindik ez zaiola horietako inori esleitu lizentzia. Lizentzia hori urtero berritzen da, eta gaur egun oraindik ez da esleipen hori egin.

Honekin batera bidaltzen dugu 2025eko ZUMAIAKO ITZURUN TEA SANTIAGO HONDARTZETAN SURF-ESKOLEK PRESTAKUNTZA JARDUERAK GARATZEKO BAIMENAK ADJUDIKATZEKO LEHIAKETARAKO ADMINISTRAZIO-BALDINTZA BEREZIEN AGIRIA, gaur egun arte erabili dena, non eskolei jarduera garatu ahal izateko eskatzen zaien dokumentazioa adierazten den.

Konpromisoa hartzen dugu 2026ko lizentzien esleipena egin bezain laster Itsas Kapitaintzari emateko, dena zuzena dela egiaztatu ahal izan dezan.

Zerbitzuaren azterketa ekonomiko-finantzarioari dagokionez, nabarmentzekoa da Udal honek ez dakiela jardueraren eskatzaileek zer onura lortu dituzten


Hala jasota gera dadin eta dagozkion ondorioak izan ditzan.

Noelia Bastías Garcia
Jardueretako eta Ingurumeneko teknikaria




1. ERANSKINA-PLANOAK

ITZURUN HONDARTZA



SANTIAGO HONDARTZA



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2026HIZB0010-Dokumentu orokorra/Documento genérico ()

Digitalki sinatua:



Zumaiako Udala

NOELIA BASTIAS GARCIA

Arkitekto teknikoa

Data: 2026/04/08 15:04:53